

EBAZPENA, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2023ko abenduaren 27ko Ebazpena. Ebazpen horren bidez aparteko dirulaguntzak eman edo ukatu ziren ardogintzako sektorean, Errioxa jatorri-deitura kalifikatuaren (JDK) babespean dauden mahastizaintzat, Ukrainako gerraren ondorioz enpresa-errendimenduak urrituta ikusi zituztelako. Dirulaguntza horiek, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko irailaren 26ko Aginduaren bidez onartu ziren 2023rako.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko irailaren 26ko Aginduaren bidez, 2023rako aparteko dirulaguntzak onartu ziren ardogintza-sektorerako, Errioxa JDK jatorri-deitura kalifikatuaren babespean dauden mahastizaintzat, Ukrainako gerra dela-eta urrituta ikusi dituztelako enpresa-errendimenduak.

2023ko irailaren 26ko Aginduaren 8. oinarriaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza da laguntzak kudeatu eta ebazteko organo eskuduna.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren 2023ko urriaren 26ko Ebazpenean, deialdiko eskakizunak betetzen zituzten ustiatzearen titularen eta zenbatutako hektarea kopuruen behin-behineko zerrenda argitaratu zen; halaber, hamar egun balioduneko epea eman zen onartzeko, ukatzeko, edo datuak aldatzeko eskatzeko, edo, behin-behineko zerrendan agertu ez baina ezarritako eskakizunak betez gero, zerrendan sartzeko eskatzeko, behar diren egiaztagirak emanda.

Horretaz gain, 2023ko azaroaren 27an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren beste ebazpen bat argitaratu zen, eta hor argitaratutako zerrendan azaltzen zen zer ustiatze-titularek zuzendu edo egiaztatu behar zuten zerbait, ardogintzako sektorean Errioxa jatorri-deitura kalifikatuaren (JDK) babespean dauden eta Ukrainako gerraren ondorioz enpresa-errendimenduak urrituta ikusi zituzten mahastizaintzako aparteko laguntzak emateari dagokionez.

Hori guztiori kontuan hartuta, eta aurkeztutako alegazioak aztertuta, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren 2023ko abenduaren 27ko Ebazpenaren bidez, 2023ko irailaren 26ko Aginduan ezarritako eskakizunak betetzen zituzten eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean zeuzkaten onuradunei eman zitzaizkien laguntzak, bai eta eskakizun horiek betetzen ez zituzten edo zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez zeuzkaten ustiatze-titularek ukatu ere. 2024ko urtarrilaren 16an argitaratu zen ebazpen hori EHAAren.

Egiaztatu da ebazpenaren I. eranskinean agertzen diren onuradunek laguntzak jasotzeko eskakizunak betetzen dituztela eta Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta daudela.

Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, 2023ko irailaren 26ko Aginduaren 7. oinarrian ezarritako unitate-zenbatekoak aplikatu dira:

A) Mahats beltzaren etekin ekonomikoak konpentsatzeko laguntza:

- a) Ustiatzeak \leq 30 ha: 390 euro/ha
- b) Ustiatzeak > 30-60 ha: 260 euro/ha
- c) Ustiatzeak > 60 ha: 130 euro/ha

B) Errendimendua murrizteko eragiketen ondoriozko galera ekonomikoak eta kostu gehigarriak konpentsatzeko laguntza:

- a) Ustiatzeak \leq 15 ha: 1.100 euro/ha
- b) Ustiatzeak > 15-30 ha: 825 euro/ha



c) Ustiategiak > 30 ha: 550 euro/ha

2023ko irailaren 26ko Aginduaren 7. oinarriaren arabera, eskatzaile bakoitzeko, 250.000 euroko laguntza emango da, gehienez ere.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Laguntzak ematea bai 2023ko abenduaren 27ko Ebazpenaren bidez emanda zeuzkaten pertsoneri, bai ebazpen honetako I. eranskinean zerrendatutako ustiategi-titularrei. Laguntzak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko irailaren 26ko Aginduan daude araututa, zeinaren bidez 2023rako aparteko dirulaguntzak onartu baitziren ardogintza-sektorean Errioxa JDK jatorri-deitura kalifikatuaren babespean dauden mahastizaintzat, Ukrainako gerraren ondorioz enpresa-errendimenduak urrituta ikusi dituztelako.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jar dakioko Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko XXXXaren XX(a).

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
JORGE GARBISU BUESA.

RESOLUCIÓN del Director de Agricultura y Ganadería, por la que modifica la Resolución de 27 de diciembre de 2023 por la que se conceden y deniegan las ayudas extraordinarias al sector del vino para el apoyo a viticultores amparados por la Denominación de Origen Calificada (DOCa) Rioja por la merma de sus rendimientos empresariales derivados de la guerra de Ucrania, aprobadas, para el año 2023, por la Orden de 26 de septiembre de 2023, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente.

Mediante Orden de 26 de setiembre de 2023, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, se aprobaron, para el año 2023, las ayudas extraordinarias al sector del vino para el apoyo a viticultores amparados por la Denominación de Origen Calificada (DOCa) Rioja por la merma de sus rendimientos empresariales derivados de la guerra de Ucrania.

De acuerdo con la base 8 de la citada Orden de 26 de septiembre de 2023, la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco es el órgano competente para la gestión y resolución de las ayudas.

Por Resolución del Director de Agricultura y Ganadería, de 26 de octubre de 2023, se publicó en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi la relación provisional de titulares de las explotaciones en las que concurrían los requisitos previstos en la convocatoria, así como el número de hectáreas computadas y se concedió un plazo de diez días hábiles para aceptar, rechazar la inclusión o solicitar la modificación de los datos y, en el caso de no figurar en el listado provisional y cumplir con los requisitos establecidos, solicitar su inclusión, mediante la aportación de la documentación acreditativa que corresponda.

Así mismo, con fecha 27 de noviembre de 2023 se publicó en el tablón de anuncios de la Sede Electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Resolución del Director de Agricultura y Ganadería por la que se publica la relación de titulares de explotaciones que deben subsanar y/o acreditar algún extremo en relación con la concesión de las ayudas extraordinarias al sector del vino para el apoyo a viticultores amparados por la Denominación de Origen Calificada (DOCa) Rioja por la merma de sus rendimientos empresariales derivados de la guerra de Ucrania, para el año 2023.

Teniendo en cuenta todo lo anterior, y tras el análisis de las alegaciones presentadas, por Resolución del Director de Agricultura y Ganadería de 27 de diciembre de 2023 se concedieron las ayudas a las personas beneficiarias que cumplían los requisitos establecidos en la Orden de 26 de septiembre de 2023 y se encontraban al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, y se denegaron para aquellos titulares de explotación que no cumplían dichos requisitos o no cumplían con sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. Esta Resolución se publicó en el BOPV el día 16 de enero de 2024.

Se ha comprobado que las personas beneficiarias que figuran en el Anexo I de esta Resolución cumplen los requisitos para la percepción de las ayudas y se encuentran inscritos en el Registro de Terceros.

La cuantía de la ayuda se ha calculado aplicando los importes unitarios establecidos en la base 7 de la Orden de 26 de setiembre de 2023:

A) Ayuda para la compensación de rendimientos económicos en uva tinta:

- a) Explotaciones \leq 30 Ha: 390 euros/Ha.
- b) Explotaciones > 30-60 Ha: 260 euros /Ha.
- c) Explotaciones > 60 Ha: 130 euros/Ha.

B) Ayuda para la compensación de las pérdidas económicas y costes añadidos por operaciones

de reducción de rendimiento:

- a) Explotaciones \leq 15 Ha: 1.100 euros /Ha.
- b) Explotaciones > 15-30 Ha: 825 euros/Ha.
- c) Explotaciones > 30 Ha: 550 euros/Ha.

De acuerdo con la Base 7 de la Orden de 26 de septiembre de 2023, el importe máximo de ayuda por solicitante no podrá superar en ningún caso la cantidad de 250.000 euros.

Por todo ello,

RESUELVO:

Primero.– Conceder, además de a las personas a quienes ya se concedió mediante Resolución de 27 de diciembre de 2023, a las personas titulares de explotaciones relacionadas en el Anexo I de esta Resolución, las ayudas reguladas en la Orden de 26 de septiembre de 2023, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, por la que se aprueban, para el año 2023, las ayudas extraordinarias al sector del vino para el apoyo a viticultores amparados por la Denominación de Origen Calificada (DOCa) Rioja por la merma de sus rendimientos empresariales derivados de la guerra de Ucrania.

Segundo.– Contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a XX de XXXX de 2024.

El Director de Agricultura y Ganadería,
JORGE GARBISU BUESA.